



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko apirilaren 5ean

38 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fonda zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdietan. Osoko Bilkurak bazter utzia (3. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

—Foru Lege proposamena, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztua, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (4. or.).

C SAILA:

Planak, Komunikazioak eta Programak:

—Eskoletako liburutegiak berritzeko plana. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen kontrako bortizkeria desagertzeko plan integral bat presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan bat egin dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Errege Bardeako tiro poligonoaren erabilera bukatutzat ematera premiatzen da. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatukoarekin negozioa dezan Aurrekontu egonkortasunari buruzko Lege proiektua aldatzea. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toxikologia klinikoko unitate bat sor dezan. Osasun Batzordeak bazter utzia (8. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egi-ten ez dela ikuskatzeko programa bat susta dezan. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsia (8. or.).

F SAILA:

Galderak:

—“Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Funtzionamendu gastuak” izeneko 05610-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).

—“Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05620-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—“Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05660-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).

—“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –713/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).

—“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –603/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06160-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

—“Konponketa-kontserbazioa” izeneko 06010-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).

—“Komunikazio telefonikoak eta CTNerekin kontratua” izeneko 06020-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—“Ibilgailuak” izeneko 05470-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

—“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –1058/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Onartuen behin betiko zerrenda (16. or.).

—Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko. Lekualdatze lehiaketa eman gabe geratu da (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua. Honen bidez ezartzen da toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 29an egindako Osoko Bilkuran, toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoa zenbat den eta nola banatuko den 2001etik 2003ra bitarteko aurrekontualdian ezartzen duen Foru Lege proiektua baztertzea erabaki zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikulua xedatutakoa betez, Erabaki hau argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2001eko martxoaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztutako eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena baztertzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2001eko otsailaren 5eko 8 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Biltzarrak, 2001eko martxoaren 29an egindako Osoko Bilkuran, Euskal Herritarrok Parlamentuko Taldeak aurkeztutako eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena baztertzea erabaki zuen.

Proposamen hori 2001eko otsailaren 12ko 12 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

C saila:
PLANAK, KOMUNIKAZIOAK ETA PROGRAMAK

Eskoletako liburutegiak berritzeko plana

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko martxoaren 27an egin-dako bilkuran, eskoletako liburutegiak berritzeko plana onetsi zuen, eta ondoko erabaki proposamenak gehitu zizkion:

1. Nafarroako Gobernuak, Parlamentuaren erabakia betez, eskoletako liburutegiak egokitu eta berritzeko plana betearazteko egutegia prestatuko du; horren arabera zehaztuko da berritu eta egokitzeko helburua lortzeko zer neurri hartu behar diren, bai eta aurrekontu, giza zein gauza baliabideak ere, ikasturte bakoitzaren bukaeran objektiboki ebaluatzen ahal direnak.

2. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak beharrezkoak diren tresnak ezarriko ditu, eskoletako liburutegiak egokitu eta berritzeko planak eta irakurketa bakarreko maparen planak irakurketa benetan sustatzeko politikaren barruan ardatz bakarra izan dadin, irakurketa kultur garapenerako eta ikaskuntza pertsonalera-ko tresna den aldetik, ezagutzak eskuartzeko aukera berdintasuna bermatuko baitu.

3. Eskoletako liburutegiak egokitu eta berritze-ko planaren azken helburua lortzearen, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak irakurketa sustatzeko plana prestatu eta gauzatuko du. Egun jakin bat ospatzeaz haraindi eta kanpaina eta estrategia irudimentsuak abiaraziz, ikastetxe bakoitzeko liburutegi planaren barruko plan horrek curriculumeko arlo guztiak bildu eta ikaskuntza aktiboa lagunduko du.

4. Eskoletako liburutegiak egokitu eta berritze-ko planaren testuan plan horren aurrekarietako zuzenketak egiten dira.

5. XXI. mendera egokitutako ikaskuntza modernoa erdiesteko, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak euskarri teknologiko egokiak jarriko ditu eskoletako liburutegi guztietan bi fasetan. Hona:

- Lehen fasea: Internetera konektatutako ordenagailu multimedia bat, laser inprimagailua eta barra-kode irakurgailu bat, ABIES programaren bidez funtsak katalogatzeko.

- Bigarren fasea: Internetera konektatutako bi ordenagailu multimedia (toki sarera kontzentragailu bidez konektatuak, eta toki sarea, berriz, Internetara bideratzaile baten bidez), ikasleek liburutegia mediateka gisa erabiltzeko.

6. XXI. mendera egokitutako ikaskuntza modernoa erdiesteko, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak beharrezkoak diren tresnak jarriko ditu abian, hurrengo hiru ikasturteetan ikastetxe ia-ia guztiek berritu eta egokitu ditzaten eskola liburutegiak. Horrela, 2001/2002 ikasturtean gutxienez ere Nafarroako ikastetxe ez-unibertsitarioen % 35ek lortuko ditu planean ezarritako helburuak –portzentaje horrek Nafarroako eskola eremu guztietako ikastetxeak hartuko ditu, eta 2002/2003 eta 2003/2004 ikasturteetan ikastetxeen % 100era iritsiko da.

7. Liburutegiak antolatze eta irakurketa sustatzeko ikastaro osoak eta hezkuntza ez-formaleko jarduketak antolatuko dira.

8. Irakasleentzako ikastaro bereziak antolatuko dira urtero, liburutegien antolamenduan, informatizazioan eta abarretan sakontzeko.

9. Mintegi egonkorak bultzatuko dira, liburutegien ardura duten irakasleak batzearen.

10. Erkidegoko liburutegi guztien –publikoen zein eskoletakoen– katalogoa egiten da.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan zedatua betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 30ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen kontrako bortizkeria desagertarazteko plan integral bat presta dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 29an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen kontrako bortizkeria desagertarazteko plan integral bat presta dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da emakumeen kontrako bortizkeria desagertarazteko plan integral bat presta dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du emakumeen kontrako bortizkeria desagertarazteko plan integral bat, arlo juridikoa, mediatikoa, hezkuntzazkoa eta laguntzazkoa, besteak beste, hartzen dituen, bi hilabeteko epean igor dezan Parlamentura.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan bat egin dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 29an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan bat egin dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Bardeako tiro poligonoak ingurumenean duen eraginari buruzko azterlan bat egin dezan

Nafarroako Gobernua premiatzen da bi hilabeteko epean enkargatu dezan Bardeako tiro poligonoak ingurumenaren gainean duen eraginari buruzko azterlan integral bat. Azterlan horretan, lehentasuna emanen zaie erabilitako armen xehe-tasunei eta osaketari, era guztietako isurketei eta haien gizakiongan, landaredian, faunan, lurtean, uretan, airean eta paisajearen duten eraginari.

Azterlana osatuko da berez behar dituen alderdi eta ezaugarriekin: eremuaren deskribapena, ingurua, maniobrak, ibilbideak, eragin orokorrak, arriskuak, eragindako kalteak konpontzeko neurriak eta abar.

Erabakia. Horren bidez, Errege Bardeako tiro poligonoaren erabilera bukatutzat ematera premiatzen da

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 29an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Errege Bardeako tiro poligonoaren erabilera bukatutzat ematera premiatzen da".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Errege Bardeako tiro poligonoaren erabilera bukatutzat ematera premiatzen da

Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du bertan behera utz dezan Errege Bardeako lurraldearen zati bat defentsa nazionalerako interesgune izendatzen duen erabakia.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gobernu zentralarekin negoziatzea Bardeako lurraldearen zati bat tiro eta bonbardaketa poligonorako erabiltzeko Bardeako Batzarrak sinaturiko kontratua, datorren ekainean amaitzen denean, bukatutzat emateko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatukoarekin negoziatzea dezan Aurrekontu egonkortasunari buruzko Lege proiektua aldatzea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 29an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatukoarekin negoziatzea dezan Aurrekontu egonkortasunari buruzko Lege proiektua aldatzea".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Estatukoarekin negoziatzea dezan Aurrekontu egonkortasunari buruzko Lege proiektua aldatzea

Nafarroako Gobernuak berehala ekinen dio Estatuko Gobernuarekin negoziatzeari, aurrekontu egonkortasunari buruzko lege proiektuan xedapen gehigarri bat eransteko. Xedapen gehigarri horretan, bidaltze-ohar espresu bat egingen da, Konstituzioko lehen xedapen gehigarriak eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 45. artikulua xedaturikora bideratzeko, eta espresuki babesteko da Foru Komunitateko finantza- eta aurrekontu-arau-bidea, aipatu legeko xedapenen aplikaziorik at utziz eta hitzarmen ekonomikoaren sistemaren arauera pasaz.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da toxikologia klinikoko unitate bat sor dezan

OSASUN BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2001eko martxoaren 28an egindako bileran, Nafarroako Gobernua toxikologia klinikoko unitate bat sor dezan premiatzen duen mozioari Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztu zion ordezeko zuzenketa baztertu zuen.

Mozio hori 2000ko abenduaren 4ko 106 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egiten ez dela ikuskatzeko programa bat susta dezan

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 2001eko martxoaren 30ean eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egiten ez dela ikuskatzeko programa bat susta dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko apirilaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sexua dela-eta lanean diskriminaziorik egiten ez dela ikuskatzeko programa bat susta dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikuskapen programa berariazko bat susta dezan, gai hauen inguruan: eskubide berdinak enpresen praktikan, sexuagatiko bazterkeriarik ez izatea lanbide sailkapenaren arloan eta lansarrietan, eta amatasunaren babesa.

F saila:
GALDERAK

“Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Funtzionamendu gastuak” izeneko 05610-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Funtzionamendu gastuak” izeneko 05610-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egingako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsitako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Nafarroako Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Funtzionamendu gastuak” izeneko 05610-9 kontusailari 109.000.000 pezeta

gehitu zaizkio, hasierako aurrekontua aski ez zelako ondoko gastuak egiteko:

- Mantentzeko presako jarduketak, Nafarroako suhiltzaile parkeetan; bereziki, Aralarko Parkeko teilatua berritzea eta parke hori egokitzea sendagile bati eta OLT bati leku egiteko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin adostuta.

- Helikopteroen kostua ordaintzea, beraiek erabiltzen dituen zerbitzua den aldetik, erabileraren arabera, Foruzaingoari buruz Kontuen Ganbarak eginiko txosteneko gomendioei jarraituz.

- Lantokietan egin beharreko erreformei aurre egitea, Mutua Navarrak suhiltzaileen parkeetako lan osasunari buruz eginiko gomendioak betez.

- Ekipamendu gehigarriaren beharrak bete dira. Behar horiei ezin zitzaien aurre egin hasieran onetsitako aurrekontuarekin; besteak beste, eskuhartzeetarako 400 kasko, udako kanpainarako 600 kasko, NBQ motako 80 jantzi eta 400 segurtasun uhal.

- 40 suhiltzaile berriren ekipamendua erostea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05620-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05620-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsitako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05620-6 kontusailan eta “Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05660-5 kontusailan 62.920.898 pezetako eta 31.000.000 pezetako gehikuntzak egin dira, hurrenez hurren, hasierako aurrekontua aski ez zelako ondoko gastuak egiteko:

- Flota berritu eta ordezte (erreskaterako 2 SAMU anbulantzia, 30 metroko autoeskailera automatiko bat eta autoponpa depositodun astun bat).

- Suhiltzaileen parkeen informatizazioa eta ekipamendua (Tafalla eta Tuterako parkeetarako 11 fax unitate, 13 oinarritzko estazio, 11 inprimagailu eta altzariak).

- Ur Erreskateko Taldearen ekipamendu behar-rrak betetzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseila-ria: Rafael Gurra Induráin

“Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05660-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05660-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

“Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05620-6 kontusailan eta “Su-itzaltze eta Salbamendu Zerbitzurako Partzuergoa. Inbertsioak” izeneko 05660-5 kontusailan 62.920.898 pezetako eta 31.000.000 pezetako gehikuntzak egin dira, hurrenez hurren, hasierako aurrekontua aski ez zelako ondoko gastuak egiteko:

- Flota berritu eta ordezte (erreskaterako 2 SAMU anbulantzia, 30 metroko autoeskailera automatiko bat eta autoponpa depositodun astun bat).

- Suhiltzaileen parkeen informatizazioa eta ekipamendua (Tafalla eta Tuterako parkeetarako 11 fax unitate, 13 oinarrizko estazio, 11 inprimagailu eta altzariak).

- Ur Erreskateko Taldearen ekipamendu beharrak betetzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –713/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –713/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne

zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsitako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Sorospen eta larrialdietarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailari 239.300 pezeta gehitu zaizkio, hasierako aurrekontua aski ez zelako Gurutze Gorriaren eta DYaren gastu arruntak ordaintzeko, Larrialdietarako Osasun Garraioaren Sarean eta babes zibilaren arloko beste jarduketetan egiten duten lana dela eta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –603/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –603/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait

galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsitako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Sorospen eta larrialdietarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailari 2.344.120 pezeta gehitu zaizkio, hasierako aurrekontua aski ez zelako Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak sustaturiko bela kanpainan egindako babes laneko gastu arruntak ordaintzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06160-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06160-9 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsitako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Sorospen eta larrialdietarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06160-9 kontusailari 250.000 pezeta gehitu zaizkio, hasierako aurrekontua aski ez zelako Gurutze Gorriaren eta DYaren gastu arrun-

tak ordaintzeko, Larrialdietarako Osasun Garraioaren Sarean eta babes zibilaren arloko beste jarduketetan egiten duten lana dela eta. Hain zuzen ere, 2000. urterako DYArako anbulantzia bat, Gurutze Gorrirako anbulantzia bat eta Gurutze Gorrirako laguntzako ibilgailu bat erostea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Konponketa-kontserbazioa” izeneko 06010-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Konponketa-kontserbazioa” izeneko 06010-6 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsitako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera

horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Konponketa-kontserbazioa” izeneko 06010-6 kontusailari 17.294.000 pezeta gehitu zaizkio, hasierako aurrekontua aski ez zelako 2000. urte osoan zehar Coordcom larrialdien kudeaketarako egungo sistemaren mantentzea ordaintzeko. Ekitaldi honetan larrialdietarako sistema kudeatzaile berri bat ezartzea aurreikusitako bada ere, ezinbestekoa da Coordcom sistemak paraleloan funtzionatzen jarraitzea, harik eta sistema berriaren fidagarritasuna guztiz bermatzen den arte, betiere larrialdietako arreta arriskuan ez jartzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Komunikazio telefonikoak eta CTNErekin kontratua” izeneko 06020-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Komunikazio telefonikoak eta CTNErekin kontratua” izeneko 06020-3 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsi-

tako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Komunikazio telefonikoak eta CTNErekin kontratua” izeneko 06020-3 kontusailari 16.500.000 pezeta gehitu zaizkio, hasierako aurrekontua aski ez zelako 2000. urte osoan zehar Nafarroako Gobernuaren egungo MRS5000 irrati sistemaren mantentzea ordaintzeko. Ekitaldi honetan TETRA irrati sare berriaren ezarpena aurreikusita badago ere, beharrezkoa da MRS5000 sistema paraleloki lanean edukitzea, harik eta sistema berriaren fida-garritasuna guztiz bermatzen den arte, betiere larrialdietako arreta arriskuan ez jartzeko.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parla-mentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseila-ria: Rafael Gurrea Induráin

“Ibilgailuak” izeneko 05470-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Ibilgailuak” izene-ko 05470-0 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Dipu-tazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizka-ri Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroa-ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parla-mentuko Taldeko foru parlamentari Juan José

Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsi-tako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Ibilgailuak” izeneko 05470-0 kontusailari 400.000 pezeta gehitu zaizkio, hasierako aurre-kontua aski ez zelako Nafarroako Foruzaingorako 2000. urtean ibilgailuak erosteko plana finantza-tzeko.

Gastua 324.329 pezetatan gainditu da (% 0,65).

Ibilgailu zahar batzuk ordeztu dira eta berriak ere behar ziren, besteak beste Justizia Jauregiaren segurtasuneko lanengatik eta Trafiko Atala handitu delako (atxilotuak eramateko ibilgailuak, patruila-autoak eta motozikletak).

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –1058/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak “Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailaren aurrekontu gehikuntzari –1058/2000 ebazpenaz onetsitakoari– buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 2000ko irailaren 26ko 75 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2000ko urriaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

ERANTZUNA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak idatziz erantzuteko zenbait galdera egin ditu Nafarroako Gobernuak, Barne

zuzendari nagusiaren ebazpenen bitartez, onetsitako aurrekontu-aldaketa batzuei buruz. Galdera horiek 2000ko irailaren 18an onartu zituen trami-tera Nafarroako Parlamentuko Mahaiak. Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

“Sorospen eta larrialditarako hitzarmen eta programak irabazi asmorik gabeko entitateekin” izeneko 06100-5 kontusailari 3.000.000 gehitu zaizkio, hasierako aurrekontua aski ez zelako Nafarroako Salbamendu Txakurren Taldearen eta beste entitate batzuen gastu arruntak diruz laguntzeko, babes zibilaren arloko haien jarduketak direla eta.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko

Onartuen behin betiko zerrenda

Lehendakaritza honek, 2001eko martxoaren 14ko 33 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Mahaiak onetsitako dedialdiaren 4.5 oinarriak ezarritakoaren arabera,

ERABAKITZEN DU:

1. Jarraian transkribatzen den onartuen behin betiko zerrenda onestea.

Onartuak:

Elorz Leoz, Luis

2. Lehiaketa honen epaimahaiari dagokionez, Langileen Batzordeak izendatutako epaimahaikidea eta ordezkoa jakinarazten da:

Epaimahaikidea: Adolfo Morales Gordo jauna

Ordezkoa: M^a Victoria Larrañeta Lizarrondo andrea

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko apirilaren 3an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko transkriptore lanpostu huts bat lekualdatze lehiaketa bidez betetzeko

Lekualdatze lehiaketa eman gabe geratu da

Lehendakaritza honek, 2001eko martxoaren 7ko 30 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Mahaiak onetsitako dedialdiaren 4.3 oinarriak ezarritakoaren arabera,

ERABAKITZEN DU:

1. Eskabide bat ere ez dela aurkeztu ikusita, lekualdatze lehiaketa eman gabe geratu da.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2001eko martxoaren 29an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués